



Version: Latest
OS: Windows XP / Vista / 7
Languages: English
License: Free

PDF Creator

Available to download on our website.
Advertisement.

noticiasdegipuzkoa.com

Miércoles, 29 de Agosto de 2012

introducir texto a buscar

BUSCAR



INICIO | POLÍTICA | BERTAN | OCIO Y CULTURA | SOCIEDAD | OPINIÓN | LA REAL | GIPUZKOA ACTIVA | IZAN GAZTE

blogs | hemeroteca | RSS

Agenda | Cultura | Ocio | Comunicación | Críticas de cine | Estrenos de cine | Vajes | Internet y ciencia | Qué mundo

imprimir | tamaño | RSS

Inicio > Ocio y cultura > Cultura

[Entrar] [Registrarse]

RAMON SAIZARBITORIA | SOZIOLOGO AETAIDAZLEA

"Orokorrean euskal kulturaren mundua ez da fin portatu indarkeriaren aurrean"

Erdi lotsati, erdi mesfidati, erdi zalantzatsu, erdi ironiko... Baina idazle oso. Ramon Saizarbitoria 'Martutene' idatzi du, ia hamar urteko sikatea apurtuz. Liburu mardul eta mamitsu honen harira huntaz eta hartaz hitz egin dugu gure literaturaren ikono bihurtu den idazlearekin

IÑAKI MENDIZABAL ELORDI - Lunes, 27 de Agosto de 2012 - Actualizado a las 05:25h

☆☆☆☆☆ (2 votos) | icomenta!

Twitter 4

Recomendar 3



Ramon Saizarbitoria, Donostiako portuan, hamar urteko lanaren ostean ondu duen 'Martutene' lana eskuetan duela (Javi Colmenero)

donostia. Groseko bere talaian mundua ikusteko patsada irabazi omen du, baina idazten duenean bere obsesioen desertuan gaitzen da donostierra. Ezin ebitatu. Damua, bikote-harremanak, heriotza, aber-tzaletasuna, gomutak, ... Euskal gizartearen ajek agertzen ditu *Martutene*n, ispiu bat baillizan, Stendhalen joerari eutsiz. Dena jartzen du ezbaian, idazkeran betiko bertuosismoa erakutsiz. Eta irakurleak bere bide propioa egin behar du hitzen labirintoan zehar.

Nobelaren klabe asko hasieran ematen dira. Unamunoren esaldi ezaguna aipatzen duzu (nobela nola egiten den nobeleskoagoa dela nobela bera bainoago). Camusena ("nobela bat non ez den deus gertatuko"), Blaken "xehetasun txikien santutasuna"... Julian pertsonaiak dioena ("edozein muturrek balio du istorio baten mataza-haririk tiratzeko"),...

Bai. *Nouveau roman*zale naiz, eta korrante horrek esaten zuen ez zuela irakurle xalorik nahi. Kontziente izango den irakurlea eskatzen dut nik, nobela batean zer den jolasa eta zer serioa desberdintzeko gai dena. Hasieratik ematen zaizkio klabe ba-tzuk, dena ez erabat. Ondradua izan nahi dut horretan.

Zenbat leku dauka sinbolismoak 'Martutene'n?

Sinbolikoki erabiltzen ditut egoerak, hitzak, ... Esaterako, trena. Elkarriketetan, atrezzo moduan, ba-tzuetan euria behar duzu, beste ba-tzuetan eguzkia, eta trena nik uste hutsuneak betetzeko, eta batzuetan hausteko, ondo datorrela.

Ez duzu oso mundu zoriontsua islatu nobelan.

Ez. Funtsean deskribatzen dudana giro burgesa da, egun lehen ez bezala existitzen baita burgesia euskalduna. Ezaguna zait mundu hori,

Vista:
Más texto
Más visual



PDF Converter

Create and convert PDF files from any application

License: Free
OS: Windows 7/Vista/2000/XP
Requirements: None

Start Download

ÚLTIMA HORA

- 19:44 *Bretón continúa con el protocolo antisuicidio en la prisión de Alcolea*
- 19:33 *Pedro Duque: "El día que Armstrong llegó a la Luna todos queríamos ser astronautas"*
- 19:21 *El forense Etxebarria asegura que su informe es "claro y demostrativo"*
- 19:15 *Zarautz acoge el campeonato de surf San Miguel Pro*
- 19:11 *No tener el ADN de una víctima no impide incriminar y juzgar a un acusado*
- 19:03 *Ban Ki-moon pide una investigación inmediata de la "atroz y brutal" masacre de Daraya*

LO + LEÍDO | LO + VOTADO | LO + COMENTADO

1. "No sé si entro en la filosofía del Athletic; en la de la Real seguro que sí"
2. La Real cierra la puerta al Athletic
3. Lakua exigirá a Gallardo el crédito de cinco millones si la planta baja de 241 empleados
4. La debilidad del euro y el alza del IVA situará la gasolina a más de 1,8 euros
5. Unas Euskal Jaiak salpicadas de novedades
6. "La Real es mi casa, le estoy muy agradecido y será difícil que me vaya"
7. Gipuzkoa se suma al alquiler de pisos y habitaciones por Internet
8. Mourinho pide a sus jugadores que "cambien de actitud"
9. El Zinemaldia recompensa el talento joven y versátil de Ewan McGregor
10. "El objetivo es tener una base de cantera"

[ver listado completo >](#)

reliant
an NRG company

Secure your low price and get \$300.

Switch Today

VÍDEOS | FOTOS | GALERÍAS



La juez de Palma ordena de nuevo la detención de Ruiz-Mateos

Web2PDF

converted by Web2PDFConvert.com

erosoa zait berau aztertzea.

Burgesak bai, baina beren munduaz oso kontent ageri ez direnak.

Bai, burgesia horrek kaltetu asko uzten ditu bidean. Duten gauzarik gaiztoena eta inkontzienteena hori da, dena kakazten duela. Kexu dira garapen ekonomikoa esaten zaionak itsasoak zikindu dituelako eta mendiak ethez bete eta pertsonak alienatzen dituelako baina ez dute ezer egiten mundua aldatzeko.

Eta bitxia da: nobelako pertsonaiarik 'jatorrena' Lynn da eta bera ateratzen da kaltetuen.

Pertsonaia gaizto gaiztorik ez dago nobelan, baina egia da bertakoen taldean sartzen den atzerritarra ateratzen dela kaltetuen. Iris Murdoch idazle irlandarraren esaldi bat jarri dut nobelan, non esaten duen badirela gazte batzuk gehiegi pentsatu gabe sartzen direnak konponezinean dauden heldu batzuen bizitzan, eta kaltetuta ateratzen direla gizajoak. Eta hori gertatzen zaio Lynni.

Tentsioa nabari da tarteka, inoiz pelikula beldurrezko bihurtzen dela.

Izan liteke. Nik uste dut egingo nukeela nobela beltz bat (irribarrez). Noizbehinka irakurleari eman behar zaio laguntza bat, tentsioarekin jolastuz, kontakizuna administratuz.

Martinek pisu handia dauka nobelan. Zenbat jaso du Martinek zugandik?

Nire alter egoa da. Badakizu, *Madame Bovary c'est moi*. Dana nigandik pasatzen da eta... Ni neu eta beste idazleren bat ere islatzen dut hor.

Literaturarik gabeko bizitza hutsala, ume izaera, bere burua zahartzat daukana,... Erretratu latza Martinena.

Bai, hala da. Eta ez du abizenik. Ez dakit zergatik ez duen abizenik Martinek. Beharbada horregatik danagatik, Martin Saizarbitoria delako.

Abaitua ere ez da libratzen eta egoista agertzen zaigu. Dan-dana dauka, agian merezi ez duen asko ere bai.

Bai, eta bere zintotasuna ere ezbaian dago. Nobelan azaltzen da nola bere mediku ofizioa ongi bete nahiaren azpian, bere pazienteen bizitza salbatzeko ahaleginean ari denean ere ze puntutaraino ageri den bere izaera nartzisista. Ona izatearen onuragatik da ona.

Gizonen erretratuak gogorrek dira. Zekenak, beldurriak, maitatzen ez dakitenak... Holakoak gara?

Tira, liburuko pertsonaiak karikaturak dira neurri batean. Hemen ere erdibidea jarri nahi dut. Ez gara hain horrelakoak, ez gara hain sinpleak. Egia da emakumeekin parekatuta galtzaile atera gintezkeela. Gaur egun asko esaten da gu baino azkarragoak direla, sentikorragoak, korrekzio politikoak hala eskatuta, baina egia da orokorrean eta maila emozionalean gu baino inteligenteagoak direla. Dena den, *Martutenen* ere Lynnek ikusten du zerbait gizon horiengan.

Martinek eta Juliak ez dute inoiz euren barne-arazoetaz hitz egiten, etorkizunaz... Etorkizunaz hitz egiten ez duten bikoteek ez dute etorkizunik?



Biei falta zaie errenditza. Errendi-tzea da esatea *zu behar zaitut*. Eta planteatzen duzun etorkizunaren kontu hori ez dut garbi ikusten.

Nobela irakurri ostean geratzen den sentsazioetako bat da bikote 'klasikoaren' modeloa ahituta dagoela.


Ahituta ez dakit baina aurreran-tzean ez da izango modelo bakarra. Hori bai, beti edukiko dugu erlazio *klasiko* horren nostalgia. Nire gazte denboran modeloa bikote tradizionala zen, baina ezkontza irtenbide bat zelako bikote moduan bizitzeko... Ez zen, ordea, modeloan sinisten. Eta modeloari irauaraztea ere ez zen zilegi, hori *karka* baitzen. Gero konturatu naiz oraingo gazteek argiago dutela bikoteak funtzionatuko badu funtzionarazi behar zaiola, landu behar dela erlazioa.

Pertsonaia errebelderen bat edo beste ere agertu zaizu.

Gutxi mugitzen zaizkit pertsonaiak nik alde zurretik markatutako lerrotik, baina bai, liburuan Juliak hartzen duen erabaki batek ni neu ere harritu egin nau. Karta bat ez du irakurri nahi izan, eta horrela semeari (Zigorri) ukatzen dio aitaren hitza. Hor egiten zait Julia autonomia eta oso pozik nago horrek. Juliak erakusten dit batzuetan ko-pla gutxiago eta hemen



El abogado de Bretón dice que "esto es surrealista"



Philippe Montanier respeta a un Celta que "juega muy bien a fútbol"
OPINA: ¿Qué opinas del estreno liguero de la Real?



El hombre con la voz más grave del mundo



Las fajas vuelven a tomar el control

batzuei ezetz esan behar zaiela, ez eta ez.

Nostalgia zenbat pisu dauka liburuan?

Izango du, baina gehiago da arbuia-tzen dudan mundu eta istorio bati adio esatea. Nire bizitzako kapitulo zenbait (euskal kontu guztia) gainditu nahi ditut, baina gorrotik gabe. Niretzat zaila izan da euskal aber-tzalea izatea, baina nik ez dut Euskal Herria gorrotatuko. Gure historia beste batzuen bezain noblea da. Leialtasun bat gorde nahi dut.

Beraz, ez gara hain gaiztoak.

Ez, ez, keba. Geure erruak onartu beharko genituzke, bakoitzak bere neurrian, guztion artean gertatutakoaren kontakizun bat adostuz.

Memoria askotan aipatzen duzu eta zure memoriaren mapa ere bada 'Martutene', ezta?

Memoria gauza zabala da. Memoria historikoa eta gure historia ez ahaztea ez da bakarrik biktimizekin egotea, baizik eta Frankismoan bizi izan dugun historiaz jardutea. Eta ahaztu egiten zaigu. Pobreak izan ginela ere bai.

Zuk zeuk ere sarritan aitortu duzu gogoratzeko idazten duzula.

Bai, horretarako idazten dut. Memoria plater hautsi bat da eta plater puskak bildu behar dira. Hori da niretzat literatura.

Heriotzaren gaiak kezkatzen zaitu.

Gogoan dut umetan Mutrikun -nire aita bertakoa baitzen- norbait hiltzen zenean herri osoa hartzen zuela heriotzaren itzalak. Hil-kanpaiak, latinezko kanta ikaragarriak... *Dies irae, dies illa...* Baina era berean herriko umeek hildakoaren etxeko atea jotzen zuten eta "ikusiko?" galdetzen zuten eta han sartzen ziren hilotza ikustera. Orain, berriz, "joan egin da" eta horrelakoak erabiltzen ditugu heriotza saihesteko. Ikasi behar genuke heriotzarekin elkarbizitzeko. *Martutenen* kontu handiz erabili dut gai hori, dramatizatu barik.

Erruaren itzala ere nabaritzen da nobelan.

Ni neure buruaz ari naiz, edo gutaz, ni lakoez. "Hay que contar historias de nacionalistas", zioen Jon Juaristik, eta ni ados nago. Bakoitzak kontu dezala bere historia. *Martutenen* denak dira gutarrak. Horieta eta horien erruaz ari naiz.

Errua euskaldunona da bakarrik?

Bakarrak ez dakit baina errudun izan garela dudarik ez. Badakit min ematen duela hiru entzuteak baina, salbuespenak salbu eta bakoitzak bere aldetik nozitu behar izan duena alde batera utzita, orokorrean *euskal kulturaren mundua* esaten zaion hori ez da fin portatu indarkeriaren aurrean. Gauza asko onartu ditugu onartu behar ez zirenak.

Eta hala ere aurrera egiten duzu.

Inportanteena da banakako hartu-emanak, eta hor ez dut uste arazo askorik dagoenik gure gizartean. Euskaldun asko dago hemen eta munduan ondo kunplitu duena, eta fama ona daukagu leku askotan.

Herri txikietako giroa latz deskribatu duzu nobelan. Zer dela eta?

Onartzen dut eskua joan zaidala hor, baina egon badago mundu hori!

Eta Donostiaz zer diozu?

Maita eta gorroto dudan hiria da. Bizitzeko baldintza fisiko primerakoak dituen baina aldi berean dekadentea dena (nahiz eta bere dekadentzia ere ederrenetakoa den). Askok aldatu da, ingurunea bereziki, kalterako. Egia da inguruko herri askok hobera egin duen neurrian dirudiela arruntagoa; irabazi egin du *gipuztu* egin den neurrian.

Bilbok ere badu tokitxo bat nobelan. Gustuko duzu hiria?

Niretzat Bilbo Bilboko poetak dira. Garai batean, Aresti ikustera joan izan nintzen gehienetan. Orain diseinuko hiria bihurtu da, baina ahal dudan guztietan Abando Ibaratik behera egiten dut, *Bilbo itsusiaren* nostalgia dudalako, "Aleman barkua atrakatu da Zorrotzan" gomutan.

☆☆☆☆☆ (2 votos) | [icomenta!](#)

[?](#) [📧](#) [📞](#) [📧](#) [📧](#) [📧](#) [Twitter](#) 4

[Recomendar](#) 3

imprimir [🔍](#) [🔍](#) [🔍](#)

Haz tu comentario

Comentarios

Número de caracteres (500/500)

introduce tu comentario

Condiciones de uso

- No están permitidos los comentarios no acordes a la temática o que atenten contra el derecho al honor e intimidad de terceros, puedan resultar injuriosos, calumniadores, infrinjan cualquier normativa o derecho de terceros.
- El usuario es el único responsable de sus comentarios.
- Noticias de Gipuzkoa se reserva el derecho a eliminarlos.

Correo electrónico

Recordarme la próxima vez

Contraseña

[¿Olvidaste tu contraseña?](#)

Enviar

Soy usuario registrado

Introduce tus datos.


[Quiero registrarme.](#) Sólo tardarás un minuto. El comentario se enviará después de registrarte.

[Publicidad](#) | [Promociones](#) | [Suscríbete](#) | [Distribución](#) | [Trabajos de impresión](#)

internet@noticiasdegipuzkoa.com | Visite también www.noticiasdealava.com | www.noticiasdenavarra.com | www.deia.com


© Diario de Noticias-Edición Digital | [Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Contacto](#) | [Mapa web](#)

Avda. Tolosa 23 20018 Donostia · Tel 943 319 200 Fax Administración 943 223 900 Fax Redacción 943 223 902

 [Suscripción por RSS](#)

 [Boletín](#)

 [Auditada por OJD](#)

 [Haznos tu página de Inicio](#)

 [Añadir a favoritos](#)